




LagunAro

**Laburpen finantzarioa
mutualista eta
pentsiodunentzat**

2026
2. hiruhilekoa

**Hiztegi ekonomikoa
Emaita finantzarioak
LagunAro, EPSV prestazioak
Albisteak**

Merkatu erresilienteak, zuhurtzia eskatzen jarraitzen duen ingurunean

2026ko bigarren hiruhilekoa
ziurgabetasunak markatutako
testuinguru batean ibili da.

Tentsio geopolitikoek, inflazioaren bilakaerari buruzko zalantzek eta nazioarteko agertoki bereziki aldakorrek eragina izaten jarraitu dute finantza merkatuen portaeran.

Hala eta guztiz ere, merkatuek erresistentziarako gaitasun handia erakutsi dute, eta, horri esker, hiruhilekoa inbertsioen bilakaera positiboarekin eta LagunArorentzako emaitza positiboekin itxi da.

Hala ere, zenbait faktorek zuhurtzia mantentzea gomentatzen dute oraindik. Inflazioaren bilakaera, banku zentral nagusien erabakiak eta egoera geopolitikoa alderdi erabakigarriak izango dira datozen hilabeteen merkatuetarako eta aurreikuspen ekonomikoetarako.

Agertoki hori hobeto ulertzen laguntzeko, Tantaka+ edizio honetan Ana Lopez Otaola LagunAroko Errenta Aldakorreko zuzendariak parte hartu du. Elkarrizketa honetan, merkatuen azkenaldiko bilakaerari eta datozen hilabeteetarako identifikatzen dituen arrisku eta aukera nagusiei buruz duen ikuspegia eta elementu horiek Entitatearen inbertsio zorroaren kudeaketan nola eragiten duten azaltzen du.

Horrez gain, LagunArok kudeatzen dituen prestazio batzuen bilakaera eta hiruhilekoan garatutako albiste eta ekimen nagusiak errepasatuko ditugu. Horrekin informazio argi, zorrotz eta erabilgarria eskaintzen jarraitu nahi dugu, lagungarria izan dadin gure sistemaren bilakaera eta bere sendotasuna eta iraunkortasuna epe luzera zaintzen laguntzen duten erabakiak hobeto ulertzeko.




Edukiak

1	LagunAro, EPSVren HIZTEGI EKONOMIKOA		5
2	EMAITZA FINANTZARIOAK	Merkatuaren bilakaera 2026ko apirila - ekaina Ana López Otaolari elkarrizketa	8
		Errentagarritasuna eta Kaudimen Marjina	13
		LagunAro, EPSVren zorroa	16
3	LagunAro, EPSV PRESTAZIOAK	Osasun Laguntza Aldi Baterako Ezintasuna Enplegu Laguntza	18 19 19
4	ALBISTEAK		20



LagunAro, EPSVren 2026ko 2. hiruhilekoa, begiratu batean:



LagunAroren Kaudimen Marjinak gora egin du bigarren hiruhilekoan, errentagarritasuna aurreikusi baino handiagoa izan delako.

Hau da adierazle nagusien laburpena:

Errentagarritasun metatua ekainaren 30ean:

2026ko bigarren hiruhilekoa +%5,50eko errentagarritasun metatuarekin itxi da, Gestio Planean ezarritako +%2,51ko aurreikuspenaren gainetik.

Kaudimen Marjina:

Kaudimen marjina %9,13koa da bigarren hiruhileko honetan, Gestio Planean aurreikositakoa baino 2,8 puntu gehiago.

Beste prestazio batzuen bilakaera

Osasun Laguntza Arrunta:

22,59 €-ko gastua, pertsona eta hileko, mutualista aktiboentzat eta horien 23 urtetik beherako seme-alabentzat.

Osasun Laguntza Berezia:

39,56 €-ko gastua, pertsona eta hileko, 60 urtetik beherako onuradunentzat.

94,35 €-ko gastua, pertsona eta hileko, 60 urteko edo gehiagoko onuradunentzat.

Aldi Baterako Ezintasuna:

Absentismo tasa %6,877koa izan da, Gestio Planean aurreikositako %6,75aren gainetik.

Enplegu Laguntza:

371 lagun langabezia estrukturalean.

Horietatik 8 lagun benetako langabezian.

45 irtenbide estruktural urteko lehen seihilekoan, horietatik 9 behin betiko birkokapenak.

Beste gai interesgarri batzuk

LagunArok berdintasunaren alde duen konpromisoa berritu du, Emakunderekin batera.

Osasun Laguntzak oso balorazio positiboa mantentzen du erabiltzaileen artean.

800 ekintza baino gehiago inbertsio arduratsuagoa bultzatzeko.

LagunArok bere jarduera kooperatibetara hurbildu du.

1**HIZTEGI
EKONOMIKOA**

Espres hiztegia, finantza informazioa ulertzen laguntzeko

Tantaka+ hiztegiak informazio ekonomiko eta finantzarioaren ohiko terminoak jasotzen ditu, gure informazioa eta gure aurreikuspen sistemaren funtzionamendua ulertzea errazteko.

Glosario osoa [esteka honetan](#) kontsulta dezakezu.

Eta, kontzeptu jakin bat azaltzea nahi baduzu, idatzi komunikazioa@lagunaro.es helbidera, eta kontuan hartuko dugu Tantaka + hurrengo zenbakirako.



Dibisa batean izendatutako aktiboa:

Moneta zehatz batean izendatuta dagoen inbertsioa, esaterako, dolarretan edo eurotan. Dolarretan jaulkitako bonu batek moneta horretan izango ditu bere balioa eta ordainketak, inbertitzen duena beste herrialde batean bizi arren. Inbertsioaren beraren bilakaeraz gain, dibisen arteko truke tasaren aldaketek ere eragina izan dezakete errentagarritasunean.

Bonu subiranoak:

Estatuek beren burua finantzatzeko jaulkitako zor titulua dira. Eskuratzen dituenak dirua mailegatzen dio herrialde jaulkitzaileari, interes batzuk jasotzearen eta epemugan kapitala berreskuratzearen truke.

Arrisku prima	Diferentziala (kreditu-spreadak)	Hedge funds	Kaudimen marjina
Atzeraldi teknikoa	Elkarrekiko muga zerga	Hornidura teknikoak	Kreditu pribatua
Azpiko inflazioa	Engagement	IBEX 35	Kreditu spreadak
Babes aktiboak	Enpresa kredituak/bonuak	IBT-TIR	Langabezia estrukturala
Barne Produktu Gordina (BPG)	Epe luzerako bonuak	IGG	Makroekonomia
Benchmark	Errenta aldakorra	Inbertsio alternatiboa	Muga zergak
Benetako langabezia	Errenta finkoa	Inbertsio Printzipioen Adierazpena (IPA)	Muga zergen gerra
BGAE (Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea)	Estanflazioa	Inbertsio Sozialki Arduratsua (ISA)	Nasdaq / "Zazpi magnifikoak"
Bonu subiranoak	Europako funts subiranoa	Inbertsio zorroa	Ondare Funtsa
Burtsako indizea	Europako pentsio funts handiak	Inflazioa (orokorra edo totala)	TTF (Title Transfer Facility)
Deflazioa	Finantza ezarpenak	Interes tasen maila neutrala	Voting
Dibisa batean izendatutako aktiboa	FUNCAS (Aurrezki Kutxen Fundazioa)	Japoniaren salbuespen ekonomikoa	Zor subiranoaren krisia
			Zuzkidura (kontabilitatekoa edo aktuariala)

2

EMAITZA FINANTZARIOAK

Merkatuaren bilakaera 2026ko apirila-ekaina
Ana López Otaolari elkarrizketa

Errentagarritasuna eta
Kaudimen Marjina

LagunAro, EPSVren zorroa

Merkatuaren bilakaera 2026ko apirila-ekaina

Ana Lopez Otaola LagunAroko Errenta Aldakorreko zuzendariarekin hitz egin dugu 2026ko bigarren hiruhilekoa markatu duten gertaera ekonomiko eta finantzario nagusiei buruz eta merkatuetan nola eragin duten.

Geopolitikak, inflazioaren bilakaerak eta adimen artifizialaren bultzadak merkatuak nola baldintzatu dituzten eta egoera hori LagunAroren inbertsio zorroaren bilakaeran eta estrategian nola islatu den aztertzen dugu.

“Enpresen emaitza sendoek merkatuen eboluzio positiboan eragin dute”

P: Zeintzuk izan dira 2026ko bigarren hiruhilekoko gertakari ekonomiko eta finantzario garrantzitsuenak maila globalean?

R: Bigarren hiruhilekoan bi faktore oso ezberdinen konbinazioa nabarmentzen da. Alde batetik, Ekialde Hurbileko gatazkak eragindako ziurgabetasun geopolitikoa handitu da, eta hazkunde ekonomikorako aurreikuspenak okertu eta inflazioa eztabaidaren erdigunean jarri du berriro. Bestetik, adimen artifizialaren bultzada ikaragarria dago, zeinak sektore guztiak eraldatzen jarraitzen duen, eta inbertsiorako motor nagusien artean sendotzen.

Ingurune konplexu hori gorabehera, finantza merkatuek egokitzeko gaitasun handia erakutsi dute. Enpresen emaitza



Ana López Otaola,
LagunAroko Errenta
Aldakorreko zuzendaria

Merkatuaren bilakaera 2026ko apirila-ekaina

sendoei esker, batez ere Estatu Batuetan, burtsek bilakaera oso positiboa izan dute, eta bereziki nabarmendu dira adimen artifizialari lotutako azpiegitura garapenaren inguruko konpainiak.

P: Nola eragin die Ekialde Hurbileko gatazkak finantza merkatuei?

R: Gatazkaren eragin nagusia energiaren esparruan nabaritu da. Ormuzko itsasartea ixteak petrolio eta deribatuen horniduren etenaldiak sortu ditu, energiaren munduko merkataritzako arteria nagusietako bati eragiten diolako.

Ondorioak ez dira berdinak izan eskualde guztietan. Estatu Batuek nolabait posizio hobea izan dute, lehengai honen esportatzaileak baitira, eta Asiako ekonomiak ahulagoak izan dira, inportazio energetikoekiko mendekotasun handiagoa dutelako. Europak ere, zuzenean arrisku txikiagoa izan arren, inpaktua nabaritu du, nazioarteko merkatuetan energiaren prezioak igotzearen ondorioz.

P: Nola jaso dituzte merkatuek Iranen eta Estatu Batuen arteko negoziazioetan egindako aurrerapenak?

R: Hiruhilekoan zehar bi aldeek negoziazioetan egindako aurrerapenak, inbertitzaileen konfiantza hobetzen eta arrisku geopolitikoaren pertzepzioa partzialki murrizten lagundu dute.

Hori esanda, oraindik ere galdera garrantzitsuak daude negoziazioen benetako irismenari eta akordio iraunkor bihurtzeko gaitasunari buruz. Inbertitzaileen komunitateak tentuz begiratzen dio elkarrizketen bilakaerari, batez ere Iranen programa nuklearrari lotutako alderdietan, non desadostasun esanguratsuak dauden oraindik ere.

P: Nolako bilakaera izan dute ekonomia nagusiek hiruhileko honetan?


R: Munduko ekonomiak portaera ezberdina erakutsi du eskualdeen arabera. Estatu Batuak bere indar erlatiboagatik

nabarmen izan dira oraindik, lan merkatu sendo batean eta balio erantsi handiko sektoreen dinamismoan oinarrituta. Europak, aldiz, hazkunde moderatuagoa izan du, energia garestitzeari buruz sentiberagoa delako, eta barne eskaera ez delako hain indartsua.


Asian, eboluzioa heterogeneoagoa izan da. Txinak bere susperraldi ekonomikoa sendotzeko formulak bilatzen jarraitzen duen bitartean, beste herrialde batzuek, Hego Koreak eta Taiwanek kasu, etekina atera diote erdieroaleen industriari eta adimen artifizialaren hedapenari lotutako eskariaren hazkunde handiari.

P: Zer bilakaera izan du inflazioak ekonomia nagusietan, eta zer erabaki hartu dituzte banku zentralek?

R: Aurreko hiruhilekoetan inflazioaren kontrolak norabide egokian aurrera egiten zuela zirudien, baina banku zentralek agertoki konplexuago bati aurre egin behar izan diote berriro. Energiaren prezioen gorakadak etorkizunean interes tasak jaisteko zeuden espektatibak berrikustera behartu du.



Merkatuaren bilakaera 2026ko apirila-ekaina



Europar Banku Zentralak prezioen egonkortasunarekin duen konpromisoa indartzea erabaki du, tasak igotzearen bidez. Estatu Batuetan, berriz, merkatuak ziurtzat jotzen du Erreserba Federalak aurreikusi baino gehiago luzatuko duela jarrera zuhur bat, eta, ondorioz, urte amaiera baino lehen tasak igotzeko aurreikuspenak indarra hartu du.

P: Zer aktibok lortu dituzte emaitzarik onenak hiruhilekoan?

R: Hiruhilekoko protagonista nagusia errenta aldakorra izan da berriro, batez ere sektore teknologikoan. Adimen artifizialari lotutako hazkundearen espektatibek mesede egin diete azpiegitura digitalen garapenari lotutako konpainia ugariri, eta bultzagarri izan dira batez ere Estatu Batuetako eta Asiako merkatuentzat.

Modu apalagoan bada ere, errenta finkoak bilakaera oina izan du inbertitzaileak tentsio geopolitikoaren barealdian konfiantza izaten hasi diren heinean. Gainera, zor korporatiboak enpresen emaitza positiboaren bultzada izan du.

Hurrengo taulak erreferentziazko indize nagusiek ekainaren 30ean zuten portaera jasotzen du:

Errenta Aldakorra (Burtsa)	2026-06-30	Hiruhileko aldak.	Urteko aldak.
IBEX 35 (Espainia)	19.472	+%14,2	+%12,5
EUROSTOXX-50 (Europa)	6.328	+%13,6	+%9,2
S&P (Estatu Batuak)	7.499	+%14,9	+%9,6
Errenta Finkoa (Interes tasak)			
EBZ Tasa Ofiziala	%2,40	+0,25 p.p.	+0,25 p.p.
Alemania Zor Publikoa 10 urtera ⁽¹⁾	%2,86	-0,14 p.p.	+0,00 p.p.
Espainia Zor Publikoa 10 urtera ⁽¹⁾	%3,35	-0,16 p.p.	+0,06 p.p.
AEB Zor Publikoa 10 urtera ⁽¹⁾	%4,42	+0,11 p.p.	+0,27 p.p.
Espainia Zor Publikoa 30 urtera ⁽¹⁾	%4,07	-0,05 p.p.	-0,05 p.p.
EUR Inbertsio Mailako Bonuak	269,32	+%2,34	+%1,33
EUR Errendimendu Handiko Bonuak	417,82	+%3,43	+%1,83

⁽¹⁾ Erreferentzia horietan tasak igotzeak zorroko zorren aktiboaren balioa galtzea dakar.

Merkatuaren bilakaera 2026ko apirila-ekaina



Bestalde, energia sektorea izan da burtsan galera handienak izan dituen, aurreko hiruhilekoan izandako irabazien zati handi bat ezabatuz. Hau tentsio geopolitikoak pixkanaka erlatzearen eta petrolio eta gasaren prezioa zuzentzearen ondorioz izan da.

Zer eginkizun izan du dolarrak testuinguru horretan?

Erreferentziazko nazioarteko dibisa izatetik harago, dolarrak inbertitzaileentzako egonkortasun elementu gisa jokatu du, ziurgabetasuna eragiten duten gertakari errepikariek markatutako epealdi batean.

Estatu Batuetako ekonomiaren sendotasunak eta Erreserba Federalak diru politika nolabait murriztailea mantenduko duela pentsatzeak indartu egin dute dolarretan izendatutako aktiboen erakargarritasuna, eta tentsio finantzarioko uneetan babesleku gisa jokatzen duten rola sendotu dute.

Nola eragin du agertoki horrek LagunAroren zorroan?

Nazioarteko testuinguruak sortu den ziurgabetasuna gorabehera, zorroak oso portaera ona izan du bigarren hiruhilekoan.

“Energiaren sektorea izan da burtsan gehien erori dena, petrolioaren eta gasaren prezioen beherakadaren ondorioz”



Merkatuen bilakaera positiboari esker, errekupeazio nabarmenak eman dira, bai errenta aldakorrean, bai errenta finkoan eta inbertsio alternatiboan.


LagunAroren inbertsioen dibertsifikazioak baliagarria dela erakutsi du berriz ere, aukera eman baitu hegazkortasuna eragiten duten gertakariak moteltzen laguntzeko eta aktibo mota ezberdinetan sortu diren aukerak aprobetxatzeko.

Inbertitzeko estrategian aldaketa garrantzitsuak izan dira?

Epe luzeko estrategia bere horretan mantentzen da. Hala ere, aktibo batzuen portaera bikainak doikuntza batzuk egitera eramán gaitu, metatutako irabazien zati bat finkatzeko.

Zehazki, errenta aldakorrekiko esposizioa pixka bat murriztu dugu, eta errenta finkoan, berriz, errentagarritasun maila erakargarriagoak baliatu ditugu, epe luzeko epemugak dituzten bonu subiranoetan posizioak indartzeko. Errentagarritasunaren eta arriskuaren arteko oreka optimizatzera bideratutako mugimenduak dira, inbertitzeko estrategia aldatu gabe.

Merkatuaren bilakaera 2026ko apirila-ekaina



Hirugarren hiruhilekoari begira, zer espero dezakegu merkatuetatik?

Hirugarren hiruhilekoa bi gai handik baldintzatuko dute. Lehenengoa tentsio geopolitikoek baretzen jarraitzen ote duten egiaztatzea izango da, horrek egonkortasun ekonomiko eta finantzario handiagoa bultzatuko baitu. Bigarrena izango da ea enpresen emaitzek adimen artifizialean jarritako espektatibak berresten jarraitzen duten.

Azken batean, merkatuek aurre egin beharreko agertokian, arriskuak eta aukerak aldi berean agertuko dira. Nazioarteko testuinguruaren bilakaera faktore garrantzitsua izango da berriro, baina hori bezain garrantzitsua izango da konpainiek duten gaitasuna egiten dituzten inbertsio indartsuak hazkunde jasangarri bihurtzeko eta etekinak sortzeko. ●

“Adimen artifizialean jarritako itxaropenak enpresen emaitzetan berresten jarraitzen duen ikusiko dugu”

“Dibertsifikazioari esker, hegazkortasuna arindu eta aktibo mota desberdinetako aukerak aprobetxatu ditugu”

Errentagarri- tasuna eta Kaudimen Marjina


Kaudimen Marjina %9,13an
dago, aurreikusi baino
askoz gorago

Testuinguru geopolitikoaren eta finantza merkatuen hegaz-
kortasunak eragindako ziurgabetasuna gorabehera,
LagunArok +%5,50eko errentagarritasun metatuarekin itxi du
2026ko bigarren hiruhilekoa –lehen hiruhilekoaren amaieran
errentagarritasun metatua +%0,18koa izan zen–, eta Gestio
Planean aurreikusitako +%2,51aren gainera geratu da.


Emaita hori espero baino handiagoa izan da, eta batez
ere errenta aldakorraren portaera onak azaltzen du, enpresen
emaitza sendoek eta inbertitzaileen konfiantza handiagoak
bultzatuta. Bilakaera horrek Kaudimen Marjina indartzen
lagundu du eta, horrekin batera, LagunAroren kokapen
finantzarioa.

Aktibo moten arabera, errenta aldakorra eta inbertsio
alternatiboa izan dira portaerarik onena izan dutenak,
+%12,15eko eta +%5,02ko errentagarritasun metatuekin,
hurrenez hurren.

Errentagarritasun metatua



Kapitulu bakoitzeko Errentagarritasun metatua




Errentagarri- tasuna eta Kaudimen Marjina


Bigarren hiruhilekoaren amaieran, Kaudimen Marjina %9,13an kokatu da, pentsio eskubideetan aurreikusitako KPIaren %3,5eko eguneraketa aplikatu ondoren. Maila hori Gestio Planaren aurreikuspena baino 2,8 puntu altuagoa da, batez ere inbertsio zorroak lortutako errentagarritasunari esker, hasieran aurreikusitakoa baino handiagoa izan baita.

Inflazioari dagokionez, 2026ko itxierarako aurreikuspenak gorantz berrikusten ari dira ekitaldian zehar. Gestio Planak %2,5eko inflazioa aurreikusten zuen hasieran, erakunde ekonomiko nagusien estimazioekin bat etorrita.


Hala ere, lehen hiruhilekoaren amaieran, Ekialde Hurbileko gatazkaren eta horrek merkatu energetikoetan duen eraginaren ondorioz, FUNCASek aurreikuspenak igo zituen –analisi ekonomikoan erreferentziazko erakundea da-. Horrenbestez, LagunAro, EPSVk %2,8ra igo zituen pentsio eskubideak eguneratzeko zuzkidurak.



Kaudimen Marjina



Errentagarri- tasuna eta Kaudimen Marjina




Testuinguru horretan, 2026ko itxierako inflazio estimazioak %3,5 inguru dira dagoeneko, eta, beraz, LagunAro, EPSVk pentsio eskubideak eguneratzeko zuzkidurak egokitu ditu berriro.

KONTZEPTUA	25-abe-31	26-mar-31	26-eka-30	Hiruhileko aldak.	Urteko aldak.
Ondare Funtsa	7.817.777	7.793.766	8.168.849	375.083	351.072
Hornidura Teknikoak guztira	-7.376.193	-7.428.095	-7.498.637	-70.542	-122.444
ONDARE GARBIA	441.584	365.672	670.212	304.540	228.628
Aurreikuspen jarduerari atxiki gabeko Aktiboak	-14.112	-13.828	-13.524	304	588
Arriskurik gabeko Horn. Tek. Segur. Marjina	-371	-382	-390	-8	-19
KAUDIMENARI ATXIKITAKO ONDARE GARBIA (1)	427.101	351.461	656.298	304.837	229.197
Hornidura Teknikoak guztira (zuzkidura gehigarria barne)	7.376.193	7.428.095	7.498.637	70.542	122.444
Hornidura Teknikoak arriskurik gabe	-297.096	-305.782	-312.188	-6.406	-15.092
KAUDIMENARI ATXIKITAKO HORNIDURA TEKNIKO ARRISKUDUNAK (2)	7.079.097	7.122.313	7.186.449	64.136	107.352
KAUDIMEN MARJINA (1)/(2)	%6,03	%4,93	%9,13	+4,20 p.p.	+3,10 p.p.

Mila eurotan.

LagunAro, EPSVren zorroa




Zorroa egonkor eta arrisku ertainarekin mantentzen da

Bigarren hiruhilekoan, LagunAroren inbertsio estrategiak aldaketa nabarmenik gabe jarraitu du. LagunAro, EPSVko talde kudeatzaileak doikuntza puntualak egiten jarraitzen du, sistemaren iraunkortasuna bermatzeko, bai epe laburrera, bai luzera.

Merkatuen portaera ona eta errenta aldakorrak lortutako balorazio altuak aprobetxatuz, ekainean gainbalio metatuen zati bat gauzatu zen –hau da, gehien birbalorizatu ziren inbertsioen zati bat saldu zen–, eta zorro osoaren barruan aktibo mota horrekiko esposizioa %2 inguru murriztu zen.

Oro har, LagunAroren zorroak profil orekatua eta dibertsifikatua du, arrisku maila ertainekoa, entitatearen kudeaketa gidatzen duten zuhurtzia eta egonkortasun printzipioekin eta epe luzerako ikuspegiarekin bat etorrira. ●

LagunAro, EPSVren aktiboen banaketa zehatza ekainaren 30era:



3


LagunAro, EPSV PRESTAZIOAK

Osasun Laguntza

Aldi Baterako Ezintasuna

Enplegu Laguntza

LagunAro, EPSVn zuretzat kudeatzen ditugun beste prestazio batzuen bilakaeraren berri ematen dizugu



Ondoren, 2026ko ekainaren 30ean metatutako banaketa prestazio nagusiek izan duten bilakaera errepasatuko dugu.

Osasun Laguntza mutualizatua (onuradun arruntak)

Estaldura hau mutualista aktiboek eta horien 23 urtetik beherako seme-alabei zuzenduta dago, edo adin horretatik gorakoei, lan egiteko ezgaituta badaude. Kooperatibek hilero jartzen dituzten kuotekin finantzatzen da.

Ekainaren amaieran gastuaren adierazlea hau da:

Gastua onuradun eta hileko

22,59€

VS.

Gestio Planean aurreik. 22,43€

Osasun Laguntza onuradun berezientzat

Prestazio hau pentsiodunei eta onuradun arrunt izateko baldintzak betetzen ez dituzten senideei zuzenduta dago –seme-alabak, ezkontideak eta izatezko bikotekideak–. Hileko kuota batekin finantzatzen da, zeina adinaren arabera aldatzen den.

Ekainaren amaieran metatutako gastua hau da:

Onuraduna < 60 urte

39,56€


Hileko kuota: 46 €

Onuraduna ≥ 60 urte

94,35€

Hileko kuota: 91€

LagunAro, EPSVn zuretzat kudeatzen ditugun beste prestazio batzuen bilakaeraren berri ematen dizugu



Aldi Baterako Ezintasuna

Absentismo tasa metatua **%6,877**an kokatu da ekainean, iaz data horretan bertan izandako absentismo tasaren (%6,707) eta Gestio Planean aurreikusitakoaren (%6,75) gainerik.

%6,877
Ekaineko absentismo tasa metatua
VS.

Gestio Planean
aurreik. %6,75

2025eko ekainean
%6,707

Enplegu Laguntza

Prestazio honek estaltzen dituen langabe estrukturalen kopurua 371raino jaitsi da; 2025eko amaieran, berriz, 410 zeuden erregistratuta. Horietatik %98 lanean ari dira gaur egun, bai jatorrizko kooperatibetan, bai beste kooperatiba batzuetan birkokatuta.

Benetako langabezian –hau da, ez dute birkokapenik martxan– dauden pertsonen kopurua 8 da, 2025aren amaierako kopuruaren azpitik hori ere, 17 izan baitzen.

Ekainera arte (datu metatua) 45 irtenbide estruktural lortu dira, hau da, urteko helburuaren %41. Horietatik, gainera, 9 behin betiko birkokapenak izan dira.

371
Lagun langabezia estrukturalen
VS.
2025eko itxieran, 410

9
Behin betiko birkokapen egoeran
VS.
2025ean, 76

Tantaka+

4

ALBISTEAK

ALBISTEAK

LagunAro, EPSVn lantzen aritu garen beste gai batzuk partekatzen ditugu zurekin



LagunArok berdintasunaren alde duen konpromisoa berritu du, Emakunderekin batera

LagunArok BAI SAREAREN topaketan parte hartu du berriki; Emakundek sustatutako sare bat da, beren kudeaketan eta eguneroko jardueran berdintasuna integratzeko konpromisoa duten erakundeak biltzen dituena.

Marina Tejedorrek, Berdintasun Batzordeko arduradunak, esperientzia eta jardunbide onak partekatu zituen sarera atxikitako beste erakundeekin.

Jardunaldian, LagunArok Emakundeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetza Erakundearen errekonozimendua jaso zuen, zeinak LagunArok arlo horretan egindako lana aitortu eta bere jardueran berdintasuna modu transbertsalean txertatzen jarraitzeko duen konpromisoa indartzen baitu.

Osasun Laguntzak oso balorazio positiboa mantentzen du erabiltzaileen artean

Koadro medikoko klinikak erabili dituzten pertsonen artean egindako gogobetetze inkestak, aurten ere, LagunAroko Osasun Laguntzaren prestazioaren balorazio oso positiboa erakusten du.

Lortutako puntuazioak maila altuetan mantentzen dira, eta onuradunek zerbitzua ondo ikusten dutela berresten dute.

Aurreko edizioetan bezala, inkestak hobekuntza proposamenak jasotzeko aukera ere eman du, LagunAroren etengabeko hobekuntza prozesuaren barruan aztertuko direnak.



ALBISTEAK

800 ekintza baino gehiago inbertsio arduratsuagoa bultzatzeko



2025ean, LagunArok 120 konpainiatan 846 inplikazio ekintza bultzatu ditu, 144 akziodunen batzar nagusitan aktiboki parte hartu du, eta 2.247 ebazpenetan erabili du boto eskubidea.

Jarduera horiek Entitatearen Inbertsio Sozialki Arduratsuko (ISA) estrategiaren parte dira, inbertsioen

kudeaketan ingurumen, gizarte eta gobernu oneko irizpideak integratzean oinarrituta.

Federated Hermeseko EOSein batera azken urteotan metatutako esperientziak berresten du konpainiekiko elkar-rrizketa (engagement) eta botoaren ariketa arduratsua (voting) tresna eraginkorrak direla hobekuntzak sustatzeko klima aldaketaren, giza eskubideen, enpresaren etikaren edo gobernu korporatibo onaren esparruetan, besteak beste.

2025eko Inbertsio Sozialki Arduratsuaren Txostena [esteka honetan kontsulta daiteke.](#)

LagunArok kooperatibetara hurbildu du bere jarduera

Bigarren hiruhilekoan, LagunArok zenbait kooperatibatako profesionalen bisita jaso du.

Jardunaldi horiek aukera ematen dute LagunArok nola lan egiten duen gertutik ezagutzeko, esperientziak partekatzeko eta zalantzak argitzeko. Helburua koordinazioa indartzea eta egunerokoan lankidetzara arinagoa eta hurbilagoa erraztea da.


Ekimena bereziki baliagarria da funtzio horietan lehen aldiz sartzen diren pertsonentzat, LagunAroren funtzionamenduarekin ohitzen eta erreferentziazko pertsonekin hasieratik harreman zuzena ezartzen laguntzen baitie.





Tantaka+

LagunAro, EPSVren komunikazio taldeak egina da.
komunikazioa@lagunaro.es
gunean jar zaitezke harremanetan taldearekin.



Informazio ekonomi-
koan ohikoak diren
terminoen

Tantaka+ HIZTEGIA



Hiztegi espresa, finantza- informazioa ulertzen laguntzeko

Tantaka+ hiztegiak informazio ekonomiko eta finantzarioaren ohiko terminoak jasotzen ditu, gure informazioa eta gure aurreikuspen sistemaren funtzionamendua ulertzea errazteko.

Arrisku prima: Herrialde batek maileguan dirua eskatzeagatik ordaindu behar duen interesaren eta seguruagotzat jotzen den beste herrialde batek (Europar, esaterako, Alemania) ordaintzen duenaren arteko aldea da. Arrisku prima zenbat eta handiagoa izan, inbertitzaileek mesfidantza handiagoa dute herrialdeak bere zorra itzultzeko duen gaitasunari buruz. Horrek finantzaketa garestiago ateratzea eta kontu publikoak konplikatzea eragin dezake.

Atzeraldi teknikoa: Ekonomia baten Barne Produktu Gordinak (BPG) bi hiruhilekotan jarraian behera egiten duenean gertatzen den egoera. Ez du nahitaez krisi sakona esan nahi, baina ekonomia hozten ari delako seinale argia da.

Azpiko inflazioa: Azpiko inflazioa kalkulatzeko, energia prezioen igoera ez da aintzat hartzen (elekttrizitatea, gasolina, gasa...), ezta prestatu gabeko elikagaiena ere (frutak, barazkiak...).

Babes aktiboak: Egoera ekonomiko eta finantzario txarretan ere, beren balioa mantentzeko joera duten tresna finantzarioak edo ondasunak. Seguru eta fidagarritzat jotzen dira, segurtasuna eta babesak ematen dutelako ziurgabetasun eta ezegonkortasun garaietan. Urrea edo Estatu Batuetako dolarra babes aktiboen adibide dira.

Barne Produktu Gordina (BPG): Denbora tarte jakin batean ekonomia batek zenbat ekoizten duen jakiteko erabiltzen den adierazlea da. Herrialde baten barruan sortzen diren ondasun eta zerbitzu guztien balioa jasotzen du. BPGa jaisten denean, jarduera ekonomikoa murrizten ari dela esan nahi du.

Benchmark: Konparaziorako elementu gisa erabiltzen diren erreferentziak (indizeak, funtsak, enpresak...).

Benetako langabezia: Langabezia estrukturalen deklaraturako mutualistak jasotzen duen prestazio ekonomikoa, birkokatu ezin den bitartean edo enplegu laguntzaren prestazioaren barruan jasotako beste estaldura modalitatearen bat eskuratu ezin duen bitartean.

BGAE (Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea): BGAEa irabazi asmorik gabeko erakunde bat da, erretirorako aurrezki planak kudeatzen dituen, borondatez, prestazio publikoak osatzeko.

Bonu subiranoak: Estatuak beren burua finantzatzeko jaulkitako zor tituluak dira. Eskuratzen dituenak dirua mailegatzen dio herrialde jaulkitzaileari, interes batzuk jasotzearen eta epemugan kapitala berreskuratzearen truke.

Burtsako indizea: Erreferentziazko adierazle bat da, balore burtsa batean kotizatutako balore multzo batekin eratzen dena, eta finantza osasuna neurtzen duen termometro gisa funtzionatzen du.

Deflazioa: Ekonomia baten ondasun eta zerbitzuen prezioen jaitsiera orokortua eta jarraitua denbora tarte batean.

Dibisa batean izendatutako aktiboa: Moneta zehatz batean izendatuta dagoen inbertsioa, esaterako, dolarretan edo eurotan. Dolarretan jaulkitako bonu batek moneta horretan izango ditu bere balioa eta ordainketak, inbertitzen duena beste herrialde batean bizi arren. Inbertsioaren beraren bilakaeraz gain, dibisen arteko truke tasaren aldaketek ere eragina izan dezakete errentagarritasunean.

Diferentziala (kreditu-spreadak): Bonu korporatiboek eskaintzen duten gehiagoko errentagarritasuna (konpainiek jaulkitako errenta finkoa, estatuek edo erakunde publikoek jaulkitakoa izan beharrean), antzeko epemuga duen zor publikoarekin alderatuta.

Elkarrekiko muga zerga: Inportazioen gaineko zerga, bi herrialderen arteko desoreka komertzialaren araberak aplikatzen dena. Hau da, adibidez, herrialde batek AEBrekiko duen superabit komertziala zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta handiagoa izango da ezarritako muga zerga. Harreman komertzial "bidegabetzat" jotzen dena zigortzeko modu bat da.

Engagement: Inbertitzen den konpainiekin etengabeko elkarriketa aktiboa izatea da helburua, IGG arloan (ingurumena, gizartea eta gobernantza) praktika hobeak sortzeko.

Enpresa kredituak/bonuak: Estatuek edo erakunde publikoek jaulki beharrean, konpainiek jaulkitako zor mota bat dira. Bonu baten jaulkitzaileak mailegatutako dirua erosleari itzuliko diola agintzen du, aurrez finkatutako interesekin, zeinak kupoi gisa ezagutzen diren.

Epe luzerako bonuak: Gobernuak edo enpresek jaulkitako zor tresnak, 10 urtetik gorako epemugak dituztenak. Aldizkako interesak ordaintzen dituzte eta, epearen amaieran, kapitala itzultzen dute. Interes tasen aldaketekiko sentikorrak dira: horiek igotzen direnean, bonuen balioa jaitsi egiten da, eta alderantziz.

Errenta aldakorra: Enpresa baten kapitalaren partaidetzen bidez egiten den inbertsio mota bat da. Errentagarritasuna aldakorra da eta ez dago bermatuta, enpresaren jardura ekonomikoaren eta akzioa merkatuan kotizatzen den prezioaren arabera baita.

Errenta finkoa: Inbertsio mota bat da, jaulkitzaile bati dirua mailegatzean datzana, hala nola gobernu bati edo enpresa bati, etekin finko baten truke. Jaulkitzaileak konpromisoa hartzen du inbertitutako kapitala gehi interesak epe jakin batean itzultzeko. Aktibo mota honen balioa aldatu egiten da interes tasaren arabera, ez ordaintzeko arriskuaren arabera...

Estanflazioa: Hazkunde ekonomikoaren geldialdia eta inflazio handia uztartzen dituen egoera ekonomikoa. Bereziki zaila da kudeatzen, tresna tradizionalak ez baitira eraginkorrak izaten bi fronteetan aldi berean.

Europako funts subiranoa: Europar Batasunak sustatutako tresna finantzarioa, energian, digitalizazioan, defentsan eta antzeko sektore estrategikoetan inbertitzeko. Beste ekonomia batzuekiko mendekotasuna murriztea eta kontinentearen autonomia industrial indartzea bilatzen du.

Europako pentsio funts handiak: Erretirorako aurrezki bolumen handiak kudeatzen dituzten erakundeak. Tamaina dela eta, inbertitzeko estrategian izandako aldaketek –adibidez, epe luzeko zorrarekiko esposizioa murriztuz edo handituz– eragin nabarmena izan dezakete aktibo mota horien errentagarritasunetan. Herbehereetako funtsen kasua paradigmatikoa da.

Finantza ezarpenak: Epe laburreko finantza inbertsioak eta kontu korrontekodirua. Likidezia.

FUNCAS (Aurrezki Kutxen Fundazioa): Espainian erreferentziazko analisi ekonomikorako zentroa, ekonomiaren bilakaerari buruzko azterlanak eta aurreikuspenak egiten dituena. Bere txostenak enpresek, erakundeek eta hedabideek erabiltzen dituzte, hazkundera, inflazioa, enplegua eta antzeko joerak ulertzeko.

Hedge funds: Errentagarritasun positiboa bilatzen duen inbertsio funts bat da, baita merkatuaren baldintzak aldekoak ez direnean ere. Beste inbertsio funts batzuetatik bereizten duena malgutasuna eta erabiltzen duen estrategia dira.

Hornidura teknikoak: LagunAro, EPSVk bere gain hartutako obligazioen balio eguneratua (pentsioak).

IBEX 35: Espainiako burtsan kotizatzen duten 35 enpresa nagusien bilakaera jasotzen duen burtsa indizea. Erreferentzia gisa erabiltzen da, Espainiako burtsa merkatuak, oro har, nola jokatzeko. IBEX 35ek gora egiten duenean, batez beste, Espainiako enpresarik handienak burtsan balioa handitzen ari direla esan nahi du; jaisten denean, kontrakoa gertatzen da.

IBT-TIR: Itzulerako Barne Tasaren akronimoa da, eta proiektuen edo inbertsioen errentagarritasunaren adierazle bat da.

IGG: IGG siglak jasangarritasunaren funtsezko hiru esparrutan erakunde baten jarduna ebaluatzeko erabiltako irizpideei buruzkoak dira (ingurumena, gizartea eta gobernantza). Ingeleseko forman ere aipatu ohi dira, ESG environmental, social eta governance.

Inbertsio alternatiboa: Aktibo finantzario tradizionalak (bonuak, akzioak edo gordailuak...) ez bezalako inbertsioak dira. Atal honetan hainbat inbertsio sartzen dira, hala nola Hedge Funds, Kapital Pribatua, Zor Pribatua, Higiezin Funtsak eta Azpiegitura Funtsak.

Inbertsio Printzipioen Adierazpena (IPA): Inbertsio politikaren printzipioak eta jarraibideak jasotzen dituen dokumentua da, eta inbertsioen kudeaketaren arloan erabakiak hartzeko prozesua ere jasotzen du.

Inbertsio Sozialki Arduratsua (ISA): Inbertsiorako ikuspegi bat da, ingurumen, gizarte eta gobernantza faktoreak txertatzen dituena (IGG) aktiboak aztertzeko eta aukeratzeko, finantza etekinak sortzeko eta, horrez gain, gizartean eta ingurumenean ere inpaktu positiboa bilatzeko.

Inbertsio zorroa: Erakunde baten esku dauden aktibo finantzarioen multzoa, zeinak errentagarritasuna lortzea baitu helburu.

Inflazioa (orokorra edo totala): Ekonomia baten ondasun eta zerbitzuen prezioen igoera orokortua eta jarraitua denboraldi iraunkor batean. LagunAro, EPSVren aurreikuspen sistemaren mehatxu handietako bat da.

Interes tasen maila neutrala: Ekonomia bultzatzen edo geldiarazten ez duen interes tasen maila. Hau da, oreka puntu bat, non ekonomia hazi daitekeen presio inflazionistik eta gehiegi hozteko arriskurik sortu gabe. Eurogunean, maila hori %2 ingurukoa da gaur egun, baina denborarekin eta testuinguru ekonomikoaren arabera aldatu daiteke.

Japoniaren salbuespen ekonomikoa: Japoniako ekonomiak egoera berezia du, interes tasa oso baxuko eta inflazio baxuko hamarkadek markatuta, AEBren eta Europaren kontrakoa. Ibilbide honen ondorioz, Japoniako Bankua beste Banku Zentral batzuk ez bezala jokatzeko ari da.

Kaudimen Marjina: Hornidura teknikoen inguruko desbideratzei aurre egiteko ondare erabilgarria. Hau da, ezustekoei aurre egiteko lagunartean koltxoi ekonomiko esaten dioguna. Kaudimen Marjina finantza arriskuak hartzen dituzten erakundeen –LagunAro, EPSVren kasuan bezala– egoera ekonomiko eta finantzarioa neurtzeko adierazle nagusia da. Guri dago-kigunez, erregulazioak ezartzen du gutxienez %4koa izan behar dela.

Kreditu pribatua: Inbertitzaileek edo funtsek enpresei emandako maileguak, bankuek emandakoen orde

Kreditu spreadak: Ikus Diferentziala.

Langabezia estrukturala: Kooperatiba batean bazkide guztientzat edo batzuentzat lan falta izatea, lan karga puntualeko egoera iragankor baten ondorio ez dena. Kooperatiba baten langabezia estrukturalaren deklarazioa LagunAro, EPSVko Prestazio Batzordeak onartzen du, kooperatibak berak eskatuta eta aurrez baldintza batzuk beteta.

Makroekonomia: Ekonomia bere osotasunean aztertzea, hazkundera, inflazioa, enplegua edo interes tasak bezalako aldagai handiei erreparatuz. Ekonomiak eta finantza merkatuak zein testuinguru orokorretan mugitzen diren ulertzen laguntzen du.

Muga zergak: Beste herrialde batetik inportatzen diren produktuei aplikatzen zaien zerga. Inportazio horiek garestitzeko eta produkzio nazionala kanpoko lehiakideetatik babesteko balio du.

Muga zergen gerra: Herrialdeen arteko gatazka ekonomikoa, non bakoitzak bestearen inportazioei muga zergak ezartzen dizkien. Helburua politikoki presionatzea edo sektore ekonomiko batzuk babestea izan ohi da, baina tentsioa sortzen du merkataritza globalean eta hazkundean eragin dezake.

Nasdaq / "Zazpi magnifikoak": Nasdaq AEBko enpresa teknologikoak biltzen dituen burtsa indize bat da. "Zazpi magnifikoak" azken urteetan burtsaren hazkundera gidatu duten konpainia teknologiko handi batzuen ezizena da (Apple, Microsoft, Amazon, Alphabet, Meta, Nvidia eta Tesla).

Ondare Funtsa: Erakunde baten aktiboen balio eguneratua. Funtz baten ondarea handitu edo txikitu egiten da, harpidetza edo errenboltso berrien eta aktiboen merkatuko balioaren arabera.

TTF (Title Transfer Facility): Gas naturalaren merkatu birtual bat da, Herbehereetan kokatua, Europan gasaren prezioaren erreferentzia ezartzen duena.

Voting: Akziodunek akzioak dituzten konpainietako Akziodunen Batzarretan bozkatzeko duten eskubidea eta praktika da. Horren barruan gai garrantzitsuei buruzko erabakiak sartzen dira, hala nola administrazio kontseilua aukeratzea, ordainsari politikak, bat egiteak eta erosketak eta gobernantza korporatiboko beste gai batzuk.

Zor subiranoaren krisia: Herrialde batek bere zor publikoa itzultzeko edo finantzatzeko zailtasunak dituenean sortzen den egoera. Arrisku primaren igoerarekin eta finantzaketa kostu handiagoekin batera joan ohi da.

Zuzkidura (kontabilitatekoa edo aktuariala): Etorkizuneko betebeharrak estaltzeko jarritako baliabideak, esaterako, pentsioak aurreikusitako inflazioaren arabera eguneratzeko.





Tantaka+

LagunAro, EPSVren komunikazio taldeak egina da.
komunikazioa@lagunaro.es
gunean jar zaitezke harremanetan taldearekin.